

**IRAKASKUNTZA-GIDA**

2019/20

**Ikastegia**

160 - Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea. Arabako Atala

**Zikl.**

Zehaztugabea

**Plana**

GTRABA10 - Gizarte Langintzako Gradua

**Ikastaroa**

3. maila

**IRAKASGAIA**

25962 - Gizarte Partaidetza eta Komunitate Garapena

**ECTS kredituak:**

4,5

**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Politika publikoetako herritarren partaidetza beharrezkoa dugu, demokrazia indarberitzeko ez ezik, gizarte errealitateari egokitzuz administrazio publikoen ekintza eta horren eranginkortasuna hobetzeko ere. Hau da, benetako inklusioa, berdintasuna, elkartasuna eta herritartasun aktiboa eta konprometitu bultzatzen duen herritarren partaidetza. Irakasgai honetan gizarte eta herritarren partaidetza zer den landuko dugu, jatorrizko baldintzak, mekanismo eta molde desberdinak, arazoak eta erronkak, ekintza programak eta ebaluazio sistemak ezagutzuz.

**GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK**

- M03CM01 Giza portaera azaltzen duten elementuak ulertu. (G001, G003)
- M03CM02 Prozesu subjektiboen dimentsio sozialaz hausnartu. (G001)
- M03CM04 Desoreka sozialak sortzen dituzten faktoreen detekzioa egin, bereziki parte hartze alorrean (G001, G003)
- M03CM05 Parte hartze proiektuak gauzatzeko norbanakoek dituzten oztopoak identifikatu eta aurre egiteko estrategiak detektatu. (G001, G004)

**HELBURUAK**

- (1) Egungo sistema politiko demokratikoaren osasuna aztertzea
- (2) Demokrazia parte- hartzaileari buruzko eztabaida, teoria politiko eztabaida garaikidean kokatu
- (3) Prozesu parte- hartzaileak martxan jartzeko erabiltzen diren tresna eta dispositiboak ezagutzea
- (4) Arloko prozesu parte- hartzaileak ezagutu eta aztertzen jakitea.

**EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK**

1. BLOKEA. PARTE HARTZEA ETA GARAPEN KOMUNITARIOA. MARKO TEORIKOA  
 Hasierako diagnostikoa. Demokraziaren barne krisia edo demokrazia krisian?  
 Ni-tik Gu-ra. Partaidetza eta bizikidetzatza  
 Hiritar parte- hartzea, zeri buruz ari gara parte- hartzeaz aritzen garenean?  
 Garapen komunitarioa eta parte hartzea
2. BLOKEA. PARTE- HARTZE SOZIAL ETA KOMUNITARIOAKO METODOLOGIAK  
 Gogoeta epistemologikoa. Ikerketa Ekintza Parte-hartzailea (IEP)  
 Prozesu parte- hartzaile baten garapena  
 Diagnostiko eta planifikazio komunitarioako metodologiak
3. BLOKEA. ESPERIENTZIA PARTE HARTZAILEAK  
 Mekanismo eta eredu parte- hartzaile motak  
 Elkarteak oinarri dituen mekanismo eta eredu parte hartzaileak  
 Lurraldea oinarri duen parte- hartzea  
 Plan komunitarioak eta proiektu integralak  
 Aurrekontu parte- hartzaileak  
 Herri kontsultak  
 Ingurumen parte- hartzea  
 Emakumeak eta parte- hartzea

**METODOLOGIA**

Hiru bide erabiliko dira irakasgai honen edukiak lantzeko:

- a) Eskola magistralak: Irakasleak kontzeptu edo teoriari buruzko eskolak hornituko ditu.
- b) Lan praktika kooperatiboak: taldeka, irakasgaiko eduki batzuk lantzeko teknika kooperatiboak erabiliko dira.
- c) Lana gauzatzeko lan saio kolektiboak: Ikasleek irakasgaiaren bukaeran entregatu behar duten lanari lotutako saioak

## IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
<b>Ikasgelako eskola-orduak</b>	33,75		11,25						
<b>Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.</b>	50,5		17						

**Legenda:** M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.  
GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak  
TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

## EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

## KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 10
- Banakako lanak % 30
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 60

## OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

### EBALUAZIO JARRAITUAREN SISTEMA

Taldeko Lana %60

Hirugarren blokeko edozein gaiari buruz

4 pertsonako taldeak

Lanak lehenengo eta bigarren blokeetan landutako dimentsio teoriko eta metodologikoak izan behar ditu.

Landu nahi den gaia problematizatu (problematique) behar da. Hau da, ez da kasu azterketa hutsa izan behar (nahiz eta atal deskriptiboa egon behar den) baizik: aztertu zer dagoen gaia horren atzean. Gaiaren dimentsio globala eta teorikoa azaldu behar da lanean. Link honetan aurkituko duzue problematique edo problematizazio horren nondik- norakoa (fr):

<http://www.etudes-litteraires.com/problematique.php>

Aukeratutako lanaren gaia justifikatu

Kasu azterketa modu deskriptiboan azaldu

Lana entregatzeko azken eguna: azterketa eguna

Azkeneko bi saioak lanen aurkezpenak egiteko izango dira. Talde bakoitzak 15-20 minututan aurkeztu behar du bere lana (bost puntu horietatik bat)

Galdera bat abiapuntu izanik, banaka egiteko gogoeta (bat bloke bakoitzeko): 1/10 gogoeta lan bakoitza (%30 guztira)

Galderak moodle-n eskegiko dira. Behin galdera eskegita astebete (7 egun) izanen duzue galdera erantzuteko.

Galdera gehienez 5000 karakteretan (tarterik gabe) erantzun behar duzue. Times New Roman edo Arial 11.

Eskolara etortzea eta parte- hartzea: %10

Eredu hau egiteko: %80 ko asistentzia

### AZKEN EBALUZIOAREN SISTEMA

Azterketa idatzia: %70

Galdera bat abiapuntu izanik, banaka egiteko gogoeta (bat bloke bakoitzeko): 1/10 gogoeta lan bakoitza (%30 guztira)

Galderak moodle-n eskegiko ditut. Behin galdera eskegita astebete (7 egun) izanen duzue galdera erantzuteko.

Galdera gehienez 5000 karakteretan (tarterik gabe) erantzun behar duzue. Times New Roman edo Arial 11.

Bi atalak gainditu behar dira irakasgaia gainditzeko

Froga finala, irakasgaiaren nota osoaren %50 edo gehiago balitz, deialdiari uko egiteko, azken frogara ez aurkeztearekin nahikoa da. Kalifikazioa: EZ AURKEZTUA izango da.

Ikasleen Ebaluaziorako Arautegiaren 8.3 artikuluari jarraiki ikasleak etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari eta horretarako, bederatzi asteko epea izango du lauhilekoa hasita, hau da, azaroaren 10a baino lehenago (bigarren lauhilekoan martxoaren 23a baino lehenago).

Ikasleen Ebaluaziorako Arautegiaren 12.2 artikuluari jarraiki deialdiari uko egin nahi dioten ikasleek irakaskuntza aldia bukatu baino hilabete lehenago egin beharko dute eskaria, hau da, azaroaren 22a baino lehenago (apirilaren 23a baino lehenago bigarren lauhileko irakasgaietan). Eskari hori idatziz aurkeztu beharko zaio irakasgaiaren ardura duen irakasleari.

Azken ebaluazioaren kasuan, ebaluaketa egun ofizialean egin beharreko proba ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki deialdiari uko egitea.

## EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

EBALUAZIO JARRAITUAREN SISTEMA: Atal bakoitzean ataratako notak gordeko dira eta ikasleak berriz ere egin beharko du gainditu ez duen atala

AZKEN EBALUAZIO SISTEMA: Azterketa eta banakako praktiken notak mantenduko dira eta ikasleak gainditu ez duen atala egin beharko du

## NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

FONT, J. (coord.) (2001) Ciudades y decisiones públicas. Barcelona: Ariel.

GRAMBERGER, M. (2006) Participación ciudadana. Manual de la OCDE. Paris: OCDE.

PHILLIPS, Anne (1996). ¿Deben las feministas abandonar la democracia liberal?&#8221;, In CASTELLS, Carme. Perspectivas feministas en teoría política. Barcelona: Paidós; 79- 97

ESPIAU, Mireia; SAILLARD, Dominique; AJANGIZ, Rafael (2005) &#8220;Género en la participación, un camino por recorrer&#8221;. Cuadernos Bakeaz nº 67.

VILLASANTE, T.R. (coord) (2000) Prácticas sociales de creatividad social. Madrid: El Viejo Topo.

YOUNG, Iris Marion (2000). La justicia y la política de la diferencia. Madrid: Feminismos. Ediciones Cátedra.

## BIBLIOGRAFIA

### Oinarrizko bibliografia

Ajangiz, R. y Blas, A. (2008) Mapa de experiencias participativas en los municipios de la CAPV. Vitoria : Gobierno Vasco.

Blas, A. ; Ibarra, P. y Ascunze, C. (2006) La participación, estado de la cuestión. Bilbao : Instituto Hegoa.

Borja, J. y Castells, M. (1997) Local y global. La gestión de las ciudades en la era de la información. Madrid : Taurus.

Espiau, M. ; Saillard, D. y Ajangiz, R. (2005) El género en la participación. Bilbao : Cuadernos Hegoa.

Font, J. (coord.) (2001) Ciudades y decisiones públicas. Barcelona : Ariel.

Gramberger, M. (2006) Participación ciudadana. Manual de la OCDE. Paris : OCDE.

Marchioni, M. (coord) (2001) Comunidad y cambio social. Teoría y praxis de la acción comunitaria. Madrid : Ed. Popular.

Martinez, Z. y Blas, A. (coord) (2008) Poder político y participación. Vitoria : Gobierno Vasco.

Telleria, I. (2010) : ¿Komunitatea berreskuratuko ikuspegi demokratikotik? en Jardute komunitarioa argituz eta saretuz- Redefiniendo el trabajo comunitario Coord. Eva Martinez y Lucia Peña, Vitoria-Gasteiz

Villasante, T.R. (coord) (2000) Prácticas sociales de creatividad social. Madrid : El Viejo Topo.

### Gehiago sakontzeko bibliografia

### Aldizkariak

### Interneteko helbide interesgarriak

## OHARRAK

Zuzenketa gramatikala eta idazkera betebeharrezko irizpidea da.